

ARRASATE P R E S S

ARRASATE / Eguena / 2004ko abenduaren 23a / 699. zenbakia

20004 urteari begiratuwa ARRASATE




JUBAR®

Kataide industrialdea 18 · 110 posta-kutxa · ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 · Faxe: 943 79 08 17
jubarateak@euskalnet.net

- Garajeko atek
- Aluminiozko pertsianak
- Automatismoak
- Konponketak

- Urrutiko aginte tresna homologatuak
- Oinezkoen atezako sistema automatikoak





Urte Berri on!

**DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK,
GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...**

JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A
Gipuzkoa Etorbidea, 32
20500 ARRASATE



**Bidaburu
AROSZTEGIA S.L.**

**Era guztietako
berrikuntza lanak
Leihoak**

**Neurri guztietako atariak
Zoruak, eta abar.**



Urte berri on!

Zubillaga 20 OÑATI
151 posta-kutxa ARRASATE
Tel.: 943 78 35 00 - Faxa: 943 71 82 54 - Poltsikokoa: 627 48 58 13
E-maila: bidaburu.h@eukalnet.net

KALEINKESTA/ Olentzero izengo bazitze, iketza norendako?



ASIER AIERBE
Ikasle



MARIA JESUS IBARGUEN
Langillie



ANJELINES RUIZ
Erretiraue



NEKANE IRALA
Langillie



JOSE RAMON OZAETA
Erretiraue



PIO AZKARATE
Langillie

Herriko alkatiendako. Santamas jaixek berak organizatu gure izen dau eta Komisiñue eta elkartiek alde batera itxi dau. Horregaittik emungo neuskio iketza alkatiei.

Espanako Errege-Erregiñei. Motibo bat izen leike oin dala gutxi Mondraguera etorri diela, baiñe hori ez da iketza mereziduteko motibo bakarra, beste asko dauz.

Badau botere eta diru asko dauken jentie, eta munduen dauen gosie akabetako ezer be ez dauena egitten. Horrei emungo neuskio neuk gus-tora iketz mordue. Zelan egon leike jentie gosiek!

Aznarrei emungo neuskio neuk iketza. Motibuek? Dauken trapu zahar danak ez dauelako argitxu eta gauza asko gorde dauelako. Neuk uste dot bera be ez dala bere buruana fixetan.

Politiko danandako iketza. Zergaittik? Batek be ez dauelako neurrixe emuten. Egitten dauena baiño gauza askoz be gehixau egin biherko leuke, baiñe ezer be ez!

Iketza norendako? Bush-endako eta European dauken lagunendako, Aznar eta horreik. Bush elegidu daue berriro be, eta Europako lagunek bardin jarraituko daue.

ETABARRUAN...

ZURIETABELTZ

GAINBEGIRATUA	/3
ONENA ETA TXARRENA	/4-5
URTEA DATUTAN	/6
URTEKO AZALAK	/9
IRUDIAK	/30

URTEARI GAINBEGIRATUA	
Urtarrila	/11
Otsaila	/12
Martxoa	/13
Apirila	/14
Maiatza	/19
Ekaina	/20
Uztaila	/21
Abuztua	/22
Iraila	/25
Urria	/27
Azaroa	/28
Abendua	/29

Arrasate
2004
urteari begiratua
ARRASATE



MIKEL LEZAMIZ / Soziologoa

Zelan eta norantz doa Arrasate

Arrasatek herri askok bezala aldaketa asko izan ditu bere historian, baina azken urteotan oraindik aldakuntza horiek askoz handiagoak dira.

Arrasate XVI. mendean burdina eta armen hiriburua izan zen eta XIX. mendetik kooperatibak sortu arte metalurgia eta sarrailagintza zen nagusi. 1956ko ULGOREn eta kooperatiben eraginez, elektragintza eta industri askoren kokagune inportantea dugu.

Arrasatek mundu osoan leku bat egin du kooperatibismo modernoari esker. Azken berrogeita hamar urteotan egindako kooperatibismoak ospe internazionala eman digu eta unibertsitate askotan ikasten da gure lana egiteko eta sortzeko era.

Arrasaten eta Debagoiengan gizaratearen aberastasuna eta ongizatea eta era berean bizi kalitatea Europako herri

aurreratuenen parekoa daukagu eta aberastasun hori hobetuen banatuta dagoen herrialde eta eskualdea da.

Lana egiteko ahalmena ugaria da eta langabezi tasarik baxuena daukagu Europa osoan. Gainera emakumezkoen ahalmena lana egiten handienetakoa da. Irakaskuntzan aldaketa asko izan da eta hiri unibertsitariora bihurtu da. Euskaraz ikasten da irakaskuntza osoan eta Euskal Herri osoarentzat eredu-rria da. Gizaratearen euskalgintzan Arrasate aitzindari dugu Arrasate Euskaldun Dezagun eta Arrasate Telebista sortuz.

Arrasate eta Debagoiena Euskal Herriko bosgarren hiriburua bihurtuko da laster, tranbia eta guzti, eta herri orekatua izango da: unibertsitate hiria, industria modernoduna, euskalduna eta bizi kalitate handikoa. Baina, guzti hori gure eskuetan dago eta ahalegindu gaitezen horrela izan dadin.

“Arrasate eta Debagoiena Euskal Herriko bosgarren hiriburua bihurtuko da, eta herri orekatua izango da”



ANDER ELORTONDO / Kontuhartzailea

Arrasateko arrakasta: herritarrak

Arrasateko ospea ezagun egin zaigu hainbat arrazoiengatik aurreko mendean batez ere. Sarrailagintzaren sorrera, kooperatibismoa eta euskalgintza elkarteak ez dira udaberriaren berez ernetzen diren lore begiak, herritar konkretuen ekimenez eta ideia horien bultzatzaile diren lagun bultzadaz lortutako garaipenak ditugu. Garai penak bere neurrian, sortu zituen indarrari eutsi ezik, udazkena datorkie garaipen loretsu hauei eta. Horregatik, erne, garai berriei moldatuz, sorrerako kemena iraun araziz, emango ditu loreak, bere fruituak.

Euskal Herri osoan errotutako ohitura izan da auzolana, herritarren herriarekiko konpromiso eta lotura eredu. XX. mendean galdutako ohituratzat jo zuen lagun batek aurrekoan. Bai zera! Erantzun nion. Badira Ara-

maion auzoak, ohitura hau gordetzen ari direnak eta gaurko Arrasaten baditugu auzolantzat jo daitezkeen herritar askoren talde lanak. Ez ahal dira herriarentzat lanean ari diren herritarrak

kirol taldeetako boluntarioak? eta dantza, trikiti eta bertso eskoletakoak? herri mugimenduetako partaideak? euskara elkarten inguruan dabiltzan guraso eta euskaltzaleak?

XXI. mendeko auzolana da herriaren aldeko lan boluntarioa. Herriari dakarkion onuragatik, Arrasatek etorkizunean gutxienez bere izena mantendu dezan, ezinbestez bultzatu eta gure partaidetzaz indartu beharrekoak dira, herritarren lan boluntarioak. Horregatik ozen aldarrikatu beharra daukagu, gure eskutan daukagula herritar guztiok, bakoitzak bere aldetik eta guztiok baturik, helburu hori eskuragarri egiteko aukera.

“Bultzatu eta gure partaidetzaz indartu beharrekoak dira, herritarren lan boluntarioak”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna, z/b
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Iker Barandiaran
Ubane Madera,
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martinez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ONENA ETA TXARRRENA

Urtea luzea izan da eta gauza asko gertatu dira, onak eta txarrak. Hala, gertakari on eta txar bana aukera dezaten eskatu diegu hamazazpi herritarri. Batzuek herriko kontuen gainean egin dute berba, eta beste batzuek kanpora begiratu dute. Zoritxarrez, gertaera txarrak aukeratzea gertaera onak aukeratzea baino errazagoa izan zaiela kontatu digute gehienek.



KEPA LIZARRALDE
AED elkarteko kultura teknikaria



MERTXE PEREZ DE CIRIZA
Bibliotekaria

↑ KAFE ANTZOKIAK, AURRERA

Durangon eta Elgetan kafe antzoki bana zabaldu dutela. Ea Arrasaten ere halakorik zabalitzen dugun! Horrez gain, Leintz ibarrean bertso eskolak, aspaldiko partez, zabaldu dituztela.

↑ KATALOGOA INTERNETEN


Liburutegi sarearen katalogoa Interneten jarri dutela. Horren bitartez, zerbitzu berriak eskaini ahal izateko aukera izango dugu, eta aurrerapauso garrantzitsua da.

↓ EUSKARARI ERASOAK

Euskarari eraso egiten jarraitzen dutela: *Egunkaria*-ren auziak jarraitzen du, Nafarroaren egoera larria, Demoen aurkako neurriak, euskararen aurkako iritziak zabalitzen dira...

↓ LIBURUTEGIEN GABEZIAK

Eusko Jaurlaritzak errekurtsio nahikorik ez du bideratu Liburutegi Zerbitzura, eta horren ondorioz, diruz larri gaudete beste komunitate autonomoekin alderatuz.



JUAN MONTIANO
Idazlea




JON ANDER JULDAIN
Udaleko langilea



SAIOA OIANGUREN
Kazetaria



ESPE LIZARRALDE
Etxekoandrea



TXIPI ORMAETXEA
Euskaltzalea

↑ EDITORE BATEN APUSTUA

Akaso hori da albiste pozgarrietako bat, neure lanean sinesten duen editorea aurkitu dudala. Horrez gain, alabak nola hazten diren ikustea ere oso pozgarria da niretako.

↑ AMAIA ANTZOKIA

Uste dut Udalak Amaia antzokiari eman dion bultzada oso positiboa izan dela. Azkenaldian zinera joan izan naizenean antzokia ia beteta ikusi dut, eta hori pozgarria da.

↑ AZNAR AGINTETIK KENTZEA

Martxoaren 14an egindako hauteskundeen emaitzak azpimarratu gura ditut, haiei esker Aznar Espainiako Gobernuako presidentziatik kendu zuten-eta. Hala ere, egoera ez da askorik aldatu.

↑ URTE BERRIA HELTZEAR

Onena da aurtengo urtea bukatzeaz dagoela eta Jainkoari eskerrak, osasunarekin-eta ondo iritsi garela amaierara. Ea datorren urtean gauden on-ona izan den zerbait esateko moduan.

↑ BATASUNAREN PROPOSAMENA

Lizarra-Garaziren garaiko esperantza ez dut ikusi orain, baina proposamen serioa da; gatazka konpontzeko egokia. Orain beste alderdiek eta ETak erantzukizunez jokatzeko espero dezagun.

↓ GIZATASUNIK EZ

Gauzek berdin jarraitzen dute: gerrak, tratu txarrak... Horrez gain, kinielan ez dut asmatu eta hori ere ez da albiste ona. Dena dela, diru asko izatea ere ez dakit oso ona den, hortaz...

↓ BATASUNARI ERANTZUNIK EZA

Batasunak Anoetan egin zuen proposamena dela-eta, gainontzeko alderdiek emandako erantzunarekin ez nator bat. Badirudi gustura daudela egun daukagun egoerarekin.

↓ TORTURAK, TRATU TXARRAK...

Torturak eta emakumeen kontrako tratu txarrak betidanik egon izan dira, eta aurtenean ere hori erakusten duten hainbat testigantza eta frogak argi izan ditugu.

↓ EMAKUMEEI ERASOAK...

Tratu txarrak eragitea emakumeei, askori eta askori hil arte; bidean geratzen diren horrenbeste etorkinen egoera ere latza da, batez ere umeena; eta martxoaren 11ko atentatua oso latza izan zen.

↓ TORTURA

Lakra edo gaitz hori demokrazia deitzen den erregimen batean gertatzea ahalgingarria da. Eta hor erantzukizuna du ez bakarrik Estatuko gobernuak, baita hemen gobernuak ere.

Urte berri on!
Enkarguak hartzen dira
Tele-ordainketa

BELEN MAIZTEGI

Biteri etorbidea 13
Arrasate
Tel.: 943 08 15 44

LITRAK


UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak



HARITZ ZUBIATE

Gazte batzarreko kidea

GAZTETXEEN ERANTZUNA

Orain dela hilabete gutxi Euskal Herriko gaztetxe eta gazte batzar guztiak batzen hasi ginen erasoei erantzun bateratuak egiteko. Eta ibarrean ere gauza bera egin dugu.

EUSKAL HERRIARI ERASOAK

Gaztetxeek jasan dituzten erasoak. Baita ere oraindik usaindu ez dugun *talante* berri hori. Horrez gain, Euskal Herriak mota askotako erasoak jasaten jarraitzen du.



ELENA HERRARTE


Txatxilipurdiko langilea

ASKE IZATEKO AHALEGINAK

Nahiz eta estatuek gure aurka egin, Euskal Herriak aske bizitzen jarraitzeko ahaleginak egiten ditu uneoro. Ea 2005ean ahalegin horiek emaitza handiagoak lortzen dituzten!

ATXILOKETAK

2004an zenbat atxiloketa egin dituzten. Espainiako eta Frantziako estatuek jarraitzen dute askatasun eskubideak urratzen. Eta dispertsioaren erruz, 16. erailketa gertatu da errepideetan.



ALBERTO GARRO

Arizmendi Ikastolako komunikazioa

KILOMETROEN ERRONKA

PPk izan duen porrota. Haren manipulazioa eta harrotasuna agerian gelditu dira. Horrez gain, Aretxabaletan zabaldu dugun Basabeazpi ikastola, eta Kilometroak egitearen erronka.

BUSHEN GARAIPENA

Bush moduko agintari batek AEBetako gehiengoaren babesa lortu duela. Interes ekonomikoengatik gerra bat sortzeko gai den pertsona munduko gizon boteretsuena izatea.



IZASKUN URIBESALGO

Athlon kirol elkarteko langilea

FAMILIA OSASUNTSU IKUSTEA

Esango nuke aurtengo gauza garrantzitsuenetakoa bat gurasoak eta seme-alabak osasuntsu ikustea izan dela. Eta horrez gain, amaren erretiroa ere gertaera oso positiboa izan da.

MINBIZI KASUEK GORA

Eta albiste txar modura azpimarratu gura dut azkenaldian minbizi kasuak zenbat igo diren. Oso deigarria iruditzen zait hori, eta uste dut badela nahiko albiste txar.



BIXENTE AZKARATE

Toki Argi erretiratuen elkartekoa

ALZHEIMERRARI AURRE

Aditu batzuek aditzera eman dute alzheimerria nondik datorren badakitela. Ea sendagaia aurkitzen duten! Bestalde, oso positiboa deritzot Batasunak Anotan eman zuen pausoari.

HIESA ETA GOSEA

Negargarria da hiesaren eta gosearen ondorioz, milioika lagun hiltzea munduan; batez ere, umeak eta emakumezkoak. Espainian barre egiten dute ez dugulako euskaldunok bat egiten.



JOSUNE ETXABE

Haur eskolako koordinatzailea

BEDOÑABEKO HAUR ESKOLA

Aurtengo ikasturtean, Arrasate Herri Eskolaren nahia bete egin dela. Bedoñaben haur eskola zerbitzua sortu dela eta zerbitzu horrek arrakasta lortu duela.

JAURLARITZAREN JARRERA

Haurren beharrak zerbitzu hezigarrian bermatu ahal izateko, 0-2 urteko neska-mutikoen etapa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bere ez egitea da okerrena.



MAITE BARREÑA

Udaleko Emakume Saila

HERRI PLATAFORMA

Emakumeon kontrako biolentziaren aurkako Herri Plataforma sortzea. Biolentzia horrekin amaitzeko ezinbestekoa delako guztiok inplikatzeari (emakume, gizon, instituzio zein elkarte).

AUKERA BERTINTASUNA

Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna ez dela lehentasuna agenda politikoetan, agintean dauden politikariek ez dituzte behar besteko neurriak hartzen berdintasuna jorratzeko.



PILI HERRERO


Ogi-saltzailea

URTE TXARRA AMAITZEAR

Oso zaila egin zait zerbait ona aurkitzea. Esan dezakedana da laster horren txarra izan den urte hau bukatu egingo dela eta urte berri bat hasiko dela. Espero dezagun hobea izatea.

MARTXOAREN 11

Oso gogorra iruditzen zait atentatua sufritu zuten pertsona koitadu haiek inolako arrazoi barik ordaintzea eta benetan gertaeraren ardura dutenek ez ordaintzea.



JOSEBA MAIDAGAN

Arrasate Errugbi Taldeko kidea

ERRUGBIKOAK LEHEN MAILAN

Urte askoan Euskadiko Ligan jokatzeko ibili eta gero, aurtengo Errugbi Taldea Estatuko lehen mailan dabil, eta gure kirolaren berri ibarrean emateko hori albiste pozgarria da.

'PATATALEA' ETA INMIGRAZIOA

Batetik, berriro ere salatu Arrasateko taldeak Garagartzako *patatalean* jokatzeko jarraitzen duela. Bestetik, ordua da immigrazioaren arazoari behar den moduko erantzuna emateko.



XABIER YANIZ

Lagun Aro Aseguruen zuzendaria

BULEGO BERRIA

Lagun Aroren bulego berriari esker herritarrekiko gertutasun handiagoa lortu dugu. Euskal Herriak bizi duen egoera politikoa ere aipatzekoa da; lasaitasun eta esperantza handiagoa daude.


BUSHEN INPERIALISMOA

Hemen egoera hobetu den moduan, munduan okertu egin da. Txarrena da Bush dela berriro presidente. AEBen inperialismoaren ikurra da eta berriro presidente izatea txarra da denondako.

egizabal
oinetakoa

Zorionak eta urte berri on


ARRASATE, Olarte 14 Tel: 943796601
BERGARA, Bidekurutzeta 13 Tel: 943761228



URTEA DATUTAN

Urtekariak urtea laburtzea izaten du helburu, eta hori ez da batere erraza. Arrasatearrok zer eta zenbat kontsumitzen dugun jakin gura izan dugu. Esaterako, liburu salduenak El

código da Vinci eta Soinujolearen semea izan dira. Disko salduenak, berriz, Melendiren eta Oskorriren azkenak. Autoei dagokionez, Ford Focus izan da aurtengo salduena.



LIBURU salduenak

EUSKARAZ

1. 'SOINUJOLEAREN SEMEA' Bernardo Atxaga
2. 'Han goitik itsasoa ikusten da' Jon Gabiria
3. 'Tximeleta tatuajea' P. Pullman
4. 'Lurtarra da begiratua' Xabier Etxabe

GAZTELANIAZ

1. 'EL CODIGO DA VINCI' Dan Brown
2. 'La sombra del viento' Ruiz Zafon
3. 'Pompeya' R. Harris
4. 'Curioso incidente del perro a medianoche' M. Haddon

DISKO salduenak

EUSKARAZ

1. 'THE PUB IBILTARIA 8' Oskorri
2. 'Betizu' Askoren artean
3. 'Euskarians' Askoren artean
4. 'Apolo 04/01/21' Fermin Muguruza

GAZTELANIAZ

1. 'SIN NOTICIAS DE HOLANDA' Melendi
2. 'Para que no se duerman los sentidos' Manolo Garcia
3. 'Fantasía y realidad' Alex Ubago
4. 'Fuera telarañas' Bebe

FILM ikusienak

1. 'EL ULTIMO SAMURAI' Edward Zwick
2. 'Te doy mis ojos' Iciar Bollain
3. 'Mar adentro' Alejandro Amenabar
4. 'Las chicas del calendario' Nigel Cole
5. 'El señor de los anillos' Peter Jackson
6. 'La sonrisa de Mona Lisa' Mike Newell
7. '21 gramos' Alejandro G. Iñárritu
8. 'Mystic River' Clint Eastwood
9. 'Planta Cuarta' Antonio Mercero
10. 'Cuando menos te lo esperas' Nancy Meyers

BIDEO hartuenak

1. 'EL JUEGO DE RIPLEY' Liliانا Cavani
2. 'El último samurai' Edward Zwick
3. 'Kill Bill' Quentin Tarantino
4. 'Cold Mountain' Anthony Minghell
5. 'Océanos de fuego' Joe Johnston
6. 'La mancha humana' Robert Benton
7. 'El señor de los anillos' Peter Jackson
8. 'Paycheck' John Woo
9. 'Ríos de color púrpura' Oliver Dahan
10. 'Yo robot' Alex Proyas

AUTO salduenak

1. FORD FOCUS 37 auto
2. Ford Mondeo 28 auto
3. Opel Astra 22 auto
4. Citroen C3 20 auto
5. Peugeot 307 18 auto
- Volks. Golf 18 auto
6. Opel Zafira 14 auto
7. Ford Fiesta 15 auto
8. Opel Zafira 14 auto
9. Citroen C5 10 auto

EGUNKARI salduenak

1. 'EL DIARIO VASCO'
2. 'Gara'
3. 'Marca'
4. 'Mundo Deportivo'
5. 'El País'

ALDIZKARI salduenak

1. 'PRONTO'
2. 'Hola'
3. 'Euskal Herria'
4. 'Cuerpomente'
5. 'Mía'

Egunik BEROENA

2004ko abuztuaren 1a

39 °C

Egunik HOTZENA

2004ko martxoaren 3a

-3 °C

Egunik EURITSUENA

2004ko azaroaren 10a

55,8 L

BIZILAGUN
kopurua
22.887

Jaiotakoak
158

Hildakoak
168

Etorritakoak
346

Joandakoak
522

ALDEA
-286

Arrasaten joan den urtean baino 286 lagun gutxiago bizi gara: alde batetik, jaiotakoak baino pertsona gehiago hil direlako; baina, bereziki, jendea herrira etorri bada ere, herritik joan direnak askoz ere gehiago direlako. Horren arrazoiak bat hemengo etxebizitzaren prezioak izango dira, seguru.

Datu horiek ofizialak dira; joan den urteko abenduaren 31koak, hain zuzen ere.



HORTZ KLINIKA
UARKAPE

Odontologia orokorra
Endodontzia
Implantologia
Protesiak



ALDEDI

Urte berri on!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



ALMACENES ARRASATE

FAGOR eta ASPES etxetresna elektrikoetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteetan interes barik.

 **2 URTE**
1.460 X 550 X 590 mm
HOZKAILUA 1FA255
265 € 44.092 pta 

 **2 URTE**
1.850 X 598 X 590 mm
HOZKAILUA COMBI 2FAC495P
359 € 59.733 pta 

 **2 URTE**
800 b/min 5 kgr.
GARBIGAILUA LA383
295 € 49.084 pta 

 **2 URTE**
1.000 b/min 6 kgr.
GARBIGAILUA LA4163
345 € 57.403 pta 

 **2 URTE**
450 b/min 6 kgr.
GARBIGAILUA LA143
208 € 34.608 pta 

 **2 URTE**
LABEA H21410 BN BITROZERAMIKA VAP1400
LABEA eta BITROZERAMIKA
345 € 57.403 pta 

 TELEBISTA LAVIS LA-1472 14"
119 € 19.800 pta.

 TELEBISTA SONY SONY 29" WEGA
399 € 66.388 pta.

 TELEBISTA PANASONIC TX-20LA2 LCD 20"
869 € 144.589 pta.

 TELEBISTA Plasma PHILIPS 42PF9946 42"
2700 € 449.242 pta.

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

ALEZ ALE

Hemen dituzue aurten egin ditugun zenbakien azalak. Jakin ezazue ARRASATE PRESSko azalok egiteko herritarren lana behar-beharrezkoa dela, zuok guztiok egindako lanaren emaitza baino ez dago-eta hemen.



657. ZENBAKIA
Erretiratuendako ortuen egitasmoa aztergai. /2004-01-16



658. ZENBAKIA
Aitzol Lazkano Euskadiko txapelketan. /2004-01-23



659. ZENBAKIA
Gazte Astea egin zuten Arrasaten. /2004-01-30



660. ZENBAKIA
Uribealagoko langileak protestan. /2004-02-06



661. ZENBAKIA
San Joseperi esplotazioa luzatu. /2004-02-13



662. ZENBAKIA
Golden Apple Quartet etorri zen herrira. /2004-02-20



663. ZENBAKIA
Herriko aurreneko zirujaua erretiratuta. /2004-02-27



664. ZENBAKIA
Emakumeen Nazioarteko Eguena. /2004-03-05



665. ZENBAKIA
Baserri auzoen egoera aztergai. /2004-03-12



666. ZENBAKIA
Sahararren aldeko elkarteak sortu zuten. /2004-03-18



667. ZENBAKIA
Mendi bizikletako Euskadiko txapelketa. /2004-03-26




668. ZENBAKIA
Goikobaluk 15 urte bete zituen. /2004-04-02



669. ZENBAKIA
Iturbide egoitza eraldatzeko plana. /2004-04-07



670. ZENBAKIA
Biarrizko bailetak saioa egin zuen herrian. /2004-04-23



671. ZENBAKIA
Errenta adierazpena euskaraz egiteko kanpaina. /2004-04-30



672. ZENBAKIA
Arrasate-Oñati lasterketa, euskarekin. /2004-05-07



673. ZENBAKIA
Hirugarren adinekoen sexualitatea. /2004-05-14



674. ZENBAKIA
Erdi Aroko lehenengo azoka. /2004-05-21



675. ZENBAKIA
AGR Arrasate Corazonistasen kontra. /2004-05-28



676. ZENBAKIA
Errugbia eta gara-gardoa bat eginda. /2004-06-04



677. ZENBAKIA
'Eskuak elkarri' ikuskizuna. /2004-06-11



678. ZENBAKIA
San Juanak 2004 heldu dira. /2004-06-18



679. ZENBAKIA
Dolara anaiak. 25 urte gaitari. /2004-06-25



680. ZENBAKIA
Stop oztopo arkitektonikoei. /2004-07-02



681. ZENBAKIA
Zeramika erakusketa Loixeren eskutik. /2004-07-09



682. ZENBAKIA
Dantza erakustaldia Monterronen. /2004-07-16



683. ZENBAKIA
Udako film emandialdiak gustuko. /2004-07-23



684. ZENBAKIA
Monterron parkea gaixo dago. /2004-09-03



685. ZENBAKIA
Autorik Gabeko Astea egutegian. /2004-09-10



686. ZENBAKIA
Babes ofizialeko etxeak zozketatu zituzten. /2004-09-17



687. ZENBAKIA
'Sonata segundu batean...' antzez-lana. /2004-09-24



688. ZENBAKIA
Maritxu Kajoi jaia ospatu genuen. /2004-10-01



689. ZENBAKIA
Umeendako masa-jeak Emakume Txokoan. /2004-10-08



690. ZENBAKIA
Birziklatutako arropen erakusketa. /2004-10-15



691. ZENBAKIA
Moto-kros lasterketa, Mojategin. /2004-10-22



692. ZENBAKIA
Txotxongilo piratak Amaia antzokian. /2004-10-29



693. ZENBAKIA
Gizarte sexista, jostailu sexistak. /2004-11-05



694. ZENBAKIA
Monterron berreskuratu guran. /2004-11-12



695. ZENBAKIA
Mondraren eta UDAREN arteko derbia. /2004-11-19



696. ZENBAKIA
Udalatx menditik harria ateratzen. /2004-11-26



697. ZENBAKIA
Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa. /2004-12-03



698. ZENBAKIA
Gabonetako mazarri lehiaketa. /2004-12-17



699. ZENBAKIA
ARRASATE PRESSko urteakaria. /2004-12-23

URTARRILA



"Debagoienean egindako ingurumen-hondamena buelta ezina da"

ANTTON MENDIZABAL / IRAKASLEA
2004-01-30



"Prostitutek langile guztiok dauzkagun eskubide berak eduki behar dituzte"

IXONE ARRIETA / LANGILEA
2004-01-30

HILEKOESALDIA

"Leintzarrek estilo baskoko txaletetan bizi gura daue, eta gero BMWean ofizinara juen"

ASIER ZUBIZARRETA / IRAKASLEA
2004-01-23

HILEKODATUA

7.957.700

EURO INBERTSIOAK EGITEKO UDAL AURREKONTUETAN

Udal aurrekontuak onartzera-koan, kopuru hori zehaztu zuten inbertsioetarako. 3,3 milioi euro kultura etxerako. /2004-01-23



Herriko gazte taldeek, elkarlanean, Gazte Astea egin zuten

Herriko gazte taldeek, elkarlanean, ekintzez betetako Gazte Astea antolatu zuten. AGAKOk, Txaxilipurdik, Arraska Skate Taldeak, Giza Izpi Alaik, Besaide Gazteak eta AED Gazteak *Mila gazte, mila kolore* leloa zuen egitaraua prestatu zuten. Besteak beste, Fermin Muguruza Kontrabanda eta Angerren kontzertuak, erakusketak, lehiaketak, ikuskizunak, eta abar. /2004-01-30

ERRETIRATUENDAKO ORTUAK

Udalak erabaki zuen Garagartzan erretiratuendako ortuak jartzea. Horretarako lanean hasi ziren. /2004-01-23

FUEL-OLIOA ETA AMIANTOA, ZERRAJERAN

Zerrajera zegoen lurzorua atontzen zebiltzan langileek fuel-olioa eta amiantoa aurkitu zuten. /2004-01-23

AIPAGARRI



AITZOL LAZKANO
Pilotaria



JON ARANBARRI
Dantzaria




FERMIN MUGURUZA
Musikaria

Arrasatearrak Euskadiko Txapelketa-ko lehenengo bi partiduak irabazi zituen. Zoritxarrez, hirugarrenean eskuan min hartu zuen. /2004-01-23

Jon Aranbarri dantzaria *Oliver* musika ikuskizunaren koreografia arduraduna izan zen. Bergarako Orfeoia hainbat hiritan eskaini zuen *Oliver*. /2004-01-16

Irungo musikaria Kontrabanda taldearekin egindako nazioarteko biran Arrasatera etorri zen. Arrasate maite duela azpimarratu zuen. /2004-01-16

JOXAN



bitxitegia eta erloju denda



"Erloju on bat edonorren eskuetan egon daiteke"

Portaloia 8 • Tel.: 943 79 22 24
ARRASATE

OTSAILA



"Hemen eskolak familien luzapenak dira. Ez da ia kulturarik nahasten"

AMAIA MARTIARTU / DISEINATZAILEA

2004-02-20



"Gaur egun gairitu beharreko arazoa da tratu txarren gainera"

PEIO ERRARTE / IKASLEA

2004-02-13

HILEKOESALDIA

"Sexualitatearen gainean inposatutako ereduak guztioi egiten digute kalte, zorrotzegiak dira"

LARRAITZ ARANDO / SEXOLOGOA


2004-02-20

HILEKODATUA

149

LAN AURKEZTU ZITUZTEN ARRASATE LEHIAKETETAN

AEDk antolatzen dituen Arrasate Lehiaketetan 149 lan jaso zituzten. Horien artean, poesia, komikiak eta beste. /2004-02-20



Garibain lur azpiko aparkalekuak egiteko lanak hasi zituzten

Garibain ipini gura dituzten lur azpiko aparkalekuak egiteko lanak hasi zituzten. Horretarako, lehenik eta behin, inguruetakozuhaitzak moztu egin zituzten, ziburu guztiak kendu zituzten eta Balantzategiren kioskoa lekuz aldatu zuten. Aparkaleku guztiak egin ahal izateko, zulo erraldoia egin behar izan zuten, eta lanek luzera joko zutela aditzera eman zuten. /2004-02-06

GAZTEEN INFORMAZIO BULETIN ELEKTRONIKOA

↑ Gazte Bulegoak, Aldundiarekin, gazteendako informazioa posta elektronikoz zabaltzeko ekimena abiarazi. /2004-02-06

SAN JOSEPE HARROBIAREN USTIAPENA LUZATZEAR

↓ Epea bukatu ostean eta kritika ugari tartean, Udala aztertzen ibili zen harrobiaren ustiapena luzatzea. /2004-02-13

AIPAGARRI



ANDRESA EGIDAZU
Erretiratua

Udalako Dolara base-
rrian jaiotako Andresa Egidazuk 100 urte bete zituen. Aspaldian Errenterian bizi da, eta bere anaia Patxik 102 urte ditu. /2004-02-06



JULEN RIBAS
Marraskilaria

Julen Ribas arrasatearrak irabazi zuen Aratusteetako esku orrien irudia aukeratzeko lehiaketaren saria. Komikiak egiten dihardu Ribasek. /2004-02-27



JOSE MARI ARTZAMENDI
Zirujaua

Jose Mari Artzamendi Arrasateko lehen zirujaua izan zen. 38 urte bete zituen Arrasateko ospitalean lan hori egiten, eta otsailean erretiratzea erabaki zuen. /2004-02-27



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

MARTXOA



"Gizarteak nagusiekiko dituen aurreiritziak aldatu behar ditu"

MERCEDES AGERA / PSIKOLOGOA
2004-03-12



"Arrasateko 18 preso politikoetatik bat bera ere ez dago Euskal Herrian"

IRATI ARANTZABAL / ETXERAT
2004-03-05

HILEKOESALDIA

"San Viatorrek iraindu egiten zituen ikasleak, euskara eta Euskal Herriaren historia"

IÑAKI BEREZIBAR / IRAKASLEA
2004-03-05

HILEKODATUA

1.600

IKASLE ESKOLA-ANTZERKI JARDUNALDIETAN

Udaleko Hezkuntza eta Kultura sailek antolatutako Eskola-antzerki jardunaldietan 1.600 ikaslek esku hartu zuten. /2004-03-26



Arrasateko beharginen testigantzak liburu baten jaso zituzten

Arrasateko langileek eraikitako herria liburua aurkeztu zuten. Lan horren egileak honako hauek izan ziren: Industria Erakusketako arduradun Isabel Aramendia eta Leire Parra historialaria. Arrasateko langileriaren bizimodua eta XX. mende hasieratik gaur egunera arte izan duen bilakaera aztertu zuten, eta hainbat langileren testigantzak batu zituzten. /2004-03-26

SAHARAREN ALDEKO NUBI ELKARTEA SORTU ZUTEN.

↑ Hainbat arrasatearrek Saharari eta hango bizilagunei laguntzeko Nubi elkarteak eratu zuten. /2004-03-18

ABAROAK EZ ZUEN ONARTU EGOITZA BERRIA

↓ Abaroa erretiratuen elkarteari desegokia iruditu zitzaion Udalak eskainitako egoitza berria. /2004-03-26

AIPAGARRI



IKER ELORTZA
Errugbi jokalaria



ENRIKE LETONA
Preso ohia



GORKA SUDUPE
Kirolaria

Iker Elortza Arrasateko errugbi jokalaria gazteak 20 urtetik beherako Euskarians taldearekin jokatu zuen Irlandako selekzioaren aurka. /2004-03-18

Enrike Letona preso ohia hirugarren aldiz atxilotu zuten. Garzon epailearen aurrean deklaratu ostean, 12.000 euroko bermepean askatu zuten. /2004-03-18

Gorka Sudupe arrasatearrak eta haren Ederra Taldeko lagunek Mendiko Bizikletako Euskadiko Opena antolatu zuten Mojategin. /2004-03-26



kurruxko

Javier Ayani Aranburuzabala
Okindegia - Urdaitegia - Gozotegia



Bañez Doktorea 12 • ARRASATE
Tel.: 943 79 22 57

APIRILA



"Bigarren mailara igo gura dugu, eta hori lortzeko gabilta lanean"

JONAN EZKIBEL / AGR ARRASATE
2004-04-23



"Dantzatzen dutenek izugarrizko arrakasta izaten dute emakumeekin"

MARIAN BARRAGAN / IRAKASLEA
2004-04-23



Arrasateko gaztetxearen '11+2 urte zirikatzen!' urteurrena

Gaztetxeko batzarrak (AGAKO) Uarkapeko eraikinaren bigarren urteurrena eta ospitale zaharrekoaren hamaika urteak ospatzeko, egitarau ikusgarria antolatu zuen. Hilabete osoan, berbaldiak, liburu aurkezpenak, antzezlanak, bazkariak eta kontzertuak egin zituzten, besteak beste. Horien artean, Japoniako musika talde bat ekarri zuten. /2004-04-02

HILEKOESALDIA

"Egia da aurrera egiteko ahalmen berezi hori beti egon dela Arrasateko gizartean"

I. ARAMENDIA / INDUSTRIA MUSEOA
2004-04-07

HILEKODATUA

15

URTE BETE ZITUEN GOIKOBALU ABESBATZAK

Goikobalu abesbatzak 15 urte bete zituen. Hainbat ekitaldi antolatu zituen eta Italiara bidaiatu egin zuten. /2004-04-02

EMAKUMEEN KONTRAKO ERASOAK SALATZEKO

↑ Herriko hainbat talde emakumeen kontrako erasoak salatzeke kale agerraldiak egiten hasi ziren. /2004-04-07

INDUSTRIA ERAKUSKETA ITXI EGIN ZUTEN

↓ Udalak Industria Erakusketa itxi egin zuen. Hala ere, asmoa da eraikin berean Industria Museoa egitea. /2004-04-02

AIPAGARRI



JOXEPA ARREGI
Erretiratua

Joxepa Arregi Garratz arrasatearra Etxerat taldeko ohoerzko presidentetzaren zuzendatzaile zuten. Semeak 25 urte baino gehiago darama preso Estatuko kartzeletan. /2004-04-02



JAVIER MERCADER
Zeramikagilea

Ceramicarte aldizkari digitaleko arduradun Javier Mercaderrek Zeramikagileen Topaketak antolatu zituen Arrasaten. Erakusketak, labe erraldoia, Racú jai. /2004-04-30



LEIRE EZPELETA
Eskiatzailea

Leire Ezpeleta, Isa Casado eta Ana Bernal lehenak izan ziren Andres de Regil mendiko eskiko kopan. Leire Ezpeleta hiru garren gelditu zen Euskadiko kopan. /2004-04-02

LANDALUZE
HARATEGIA URDAITEGIA
ITURRIOTZ KALEA. 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

Ondo pasatu Gabonetan!



BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

UGARTE

AROSZTEGIA - ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zaharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan, 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

ZUTARRI S.L.

Eraikuntza enpresa

Berritze lanak
Barruko erreformak
Obra berriak

Gabon jai zoriontsuak
opa dizkizuegu

Tel.: 943 79 67 78 / 639 77 86 90
Zerkaosteta, 17 · 20500 ARRASATE



Topa

URTI



ein daigun!

IRI ON DENOI!

Bengoa

Basati

Biona

Jai Zale

Ekaitz

Branka

Boliñete

Lora

Express

Gure Leku

Amets

Monte

Irati

Itzala

Porterriell

SPORT *Key*

gabon hauetako izarrak



*Giltzaren kopia egiterakoan
eska itzazu zure ohiko saltokian*

JMA 

MAIATZA



"Mondrak 2 edo 3 urte barru futbol zelai berria izango du, Musakolan"

J. L. EZKURRA / MONDRA TALDEA
2004-05-21



"Guapo egotea baino garrantzitsuagoa da hegoaldea laguntzea"

TXARO DE DIEGO / LANGILEA
2004-05-28

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA

"Arrasateko gazteen gaztelarrekiko mendekotasuna erabatekoa da, arduratzekoa"

KIKE AMONARRIZ / SOZIOLINGUISTA
2004-05-21

4

URTE BETE ZITUEN ARRASATEKO EUSKALGINTZAK

Arrasaten euskararen alde lan egiten duten taldeek Arrasateko Euskalgintza sortu zuten 2000. urteko maiatzean. /2004-05-07



ONCE-K 350.000 EURO BANATU ZITUEN HERRIAN

Arbolapetan ONCE saltzen duen Ernesto Trigasek sari nagusia zuten hamar kupoi saldu zituen. /2004-05-28

ZABARTE ETA ARREGI, 20 URTETIK GORA KARTZELAN

Jesus Mari Zabarte arrasatearrak eta Jon Agirre aramaio-arrak 20 urte baino gehiago daramate preso. /2004-05-14

AIPAGARRI



FELIX AYALA
Margolaria



JUANA CACERES
Erretiratua



JUAN CORRAL
Musikaria

Felix Ayala margolari arrasatearrak Bergarako Abdon Juaristi margo lehiketa irabazi zuen. Bigarren aldia da hori irabazten duena. /2004-05-21

Juana Caceres arrasatearrak 99 urte bete zituen maiatzean. Quintana de la Serenan jaio zen Caceres, baina orain dela 42 urtetik Arrasaten bizi da. /2004-05-07

Juan Corral musikaria, Brutal Melody eta Ekon taldeetan ibili ondoren, Fjord sortu zuen Etsaiak eta Su Ta Gar taldeetako kide ohikina. /2004-05-07

Arrasateko alde zaharra Erdi Aroko azoka erraldoia bihurtu zuten

Udalak I. Erdi Aroko Azoka antolatzea erabaki zuen. Horretarako Kataluniako enpresa bat kontratatu zuen, eta horrek ekarri zuen guztia. Azokak 23.000 euroko aurrekontua izan zuen, eta alde zaharra Erdi Aroko azoka bihurtu zen. Besteak beste, artisauak, gozogileak, jokoak eta ikuskinak izan ziren. Hainbat herritarrek euskararen presentzia eza salatu zuten. /2004-05-22

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

KONTRATAK IRVROK S.L. ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Ondo pasatu Gabonak!

Maalako errebala 23
ARRASATE
Tel.: 943 71 24 16

Berezitasunak Kazuelatxoak Ogitarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

EKAINA



"Eskuak Elkarri'-k aditzera eman du hainbat arlotan lan egiteko gai garela"

J. V. DE MENDIZABAL / IDAZLEA

2004-06-11



"San Juanak diruarekin soilik antolatutako jaiak dira, eta hori arrotza da"

GORKA ZUBIZARRETA / DISEINATZAILEA

2004-06-18

HILEKOESALDIA

"Gazteak bertsolaritzara ia gerturatzen ez direnez, gaztetxeetara jo dugu bertsotan"

JOKIN LABAYEN / BERTSOLARIA

2003-06-18

HILEKODATUA

40

URTE BETE ZITUEN SUDC ELKARTEAK

Herrian hainbat ekitaldi antolatzen dituen SUDC elkarteak 40 urte bete zituen, eta omenaldia egin zioten. /2004-06-18



Bat-batean, Tropikoetako moduko ekaitza eta uholdea

Ekainean izugarritzko bero eta sargoria egin zuen. Eta, hala, ekainaren 8an, bat-batean euria hasi zuen gogor eta haize zakarra altxatu zen, Tropikoetako ekaitza balitz bezala. Ordubetean, errepi-deak urez bete ziren eta hainbat etxabek eta garajek gainezka egin zuten. Musakolako San Isidro elizaren inguruak eta Uriben, Iturripeko inguruak (argazkian) izan ziren kaltetuenak. /2004-06-08

'ESKUAK ELKARRI', HERRIKO IKUSKIZUNA

Goikobalu elkarteak Arrasateko historiaren gaineko *Eskuak Elkarri* ikuskizuna zuzendu zuen. /2004-06-11

AGR ARRASATE EZ ZEN EUSKADIKO MAILARA IGO


AGR Arrasate Eskubaloi taldeak Corazonistasen aurka galdu zuen, eta ez zen Euskadiko mailara igo. /2004-06-04

AIPAGARRI



JUANITO ARTZAMENDI
Musika zuzendaria

Juanito Artzamendi Arrasateko Musika Bandako zuzendaria eta Arrasateko Musika Eskolako sortzailea hil zen gaixotasun luze baten ondorioz. /2004-06-04



DOLARA ANAIK
Gaitariak

Herriko gaitariak, Dolara anaiek, 25 urte bete zituzten eginkizun horretan. Orduetik hona herriko jai guztiak alaitzen dihardute, gogo handiz. /2004-06-25



ARRATE FERNANDEZ
Zinemagilea

Arrate Fernandez Andoaingo zinemagileak Arrasateko mitologiaren gaineko film laburra aurkeztu zuen. Udalak lagundu zuen. /2004-06-25

Gyabon & oriontsuak !



=KANPAZAR

Tailerra : Bizkaia etorbidea , z/g . • Tel : 943 79 41 98

Erakusketa : Araba etorbidea , 32 • Tel : 943 79 77 66

Arrasate

UZTAILA

HILEKO ESALDIA

HILEKODATUA

“Oporretan lasaitu beharrean, opor ostekoaz arduratzen dira batzuk”

466

UME ETA GAZTETXOK EMAN ZUTEN IZENA UDALEKUETAN


Txatxilipurdik antolatu zituen udalekuak. Ume horietatik 298 udaleku irekietan izan ziren eta 268 udaleku itxietan /2004-07-02

AITOR ZABALO / INGENIARIA
2004-07-23



“Neskok gona jantzi behar genuen Meteorako monasteriora sartzeko”

MAIALEN EGUES / IKASLEA
2004-07-09



“Urrezko bi domina eskuratzeaz gain, neure markak hobetu ditut”

MARIA JOSE GIL / ATLETA
2004-07-16



Ibarreko gazte batzarrak herrian

Uztailaren 24an Debagoieneko gaztetxe eta gazte batzarrak bat egin zuten Arrasaten. Eta, ibarrekoez gain beste hainbat gonbidatu ere izan zituzten: Gasteiz, Barañain, Sorgintxulo (Santutxu) eta Irungo gaztetxeak, hain zuzen ere.

Euskal Herriko gaztetxeen eta gazte batzarren arteko koordinadora sortzeko ideia aspaldikoa da. Goizean jokoa eta mahainguruak egin zituzten. Herri bakoitzeko gaztetxearen edo gazte batzarren egoera azaldu zuten, eta etorkizunean elkarrekin egin ahal izateko proposamenak bota zituzten: ibarreko ekitaldi guztiak batuko dituen asteroko agenda, adibidez. Beste ekimen batzuen artean prentsaurrekoa egin zuten, Euskal Herrian hainbat gaztetxe itxi zituztela salatzen. //I.B. 2004-07-23


ESKLEROSI ANIZKOITZAREN ALDEKO KANPAINA

↑ *Busti zaitetz izenburupean, esklerosi anizkoitzaren aldeko kanpaina egin zuten Musakolako kiroldegian. /2004-07-16*

‘BERMI’-REN ETA ‘PITXI’-REN HERIOTZA

↓ *Herriaren alde lan handia egindako bi herrikide hil ziren, Pitxi Herrero eta Juan Jose Uriarte Bermi. /2004/07/23*

AIPAGARRI



VALENTIN ARANA
Margolaria

Valentin Aranak erakusketa ipini zuen, bi lagunekin batera, Zarauzko Kayua galerian. Aranak hama bi lan ipini zituen erakusketan, denak olioak. /2004-07-23



JUAN LUIS LIZARRALDE
Margolaria

Juan Luis Lizarralde Gipuzkoako erretiratuen lehia ketako lehen saria eskuratu zuen. Leintz Gatzagako etxe bat marraztu zuen. /2004-07-16



MARKEL BLANCO
Atleta

Markel Blankok zilarrezko domina ekarri zuen Espainiako Txapelketatik. Mila metroko lasterketan parte hartu zuen, eta gutxigatik ez zuen irabazi. /2004-07-09

Uarkape jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta.

2005a ere oparoa izan dadila!

Otalora lizentziatua 10
Tel.: 943 77 20 04
ARRASATE

ABUZZTUA



"Garabien lanuzteak eragin digu, Sevillan geratu da-eta autoa"

MIREN LASAGABASTER / LANGILEA

2004-09-03



"Lehen ondo ikusita zegoen azal zuria, estatus altuaren adierazgarri zen"

ANDER ETXEBERRIA / LANGILEA

2004-09-3

HILEKOESALDIA

"Monterron zaharra da berez, zuhaitz zaharrak ahulak dira eta ondoek kalte egiten diete"

GABRIEL IGUÑIZ / ADITUA

'DV' / 2004-08-21

HILEKODATUA

25

URTE PASA ZIREN JOKIN ZAITEGI HIL ZENETIK

Abuztuaren 17an, hogeita bost urte bete ziren Jokin Zaitegi idazle eta itzultzaile arrasatearra hil zela. /2004-08-17

HEZKUNTZA

Abuztuan lanean ibili arren, Bedoñabeko lanak atzeratuta

Uztailaren 5ean hasi zituzten San Andresko eskolako egokitze lanak, eta abuztuan lanean ibili baziren ere, lanok ez zituzten irailerako amaitu. 0-3 urte bitarteko haurtzaindegia abian jartzeko asmoz zebiltzan lanak egiten. Egun, dagoeneko eskaintzen dute zerbitzu hori. /2004-09-03



Udal artxiboko milioi bat dokumentu bustita

Abuztuaren 30ean jabetu ziren langileak Udal Agiritegian ura sartu zela. Urak ia metro erdiko altuera hartu zuen, eta mila-k dokumentu busti. Langileak berehala hasi ziren dokumentuak erreperatu eta Uarkapera eramaten. /2004-08-30

ZAHARRAK

Nagusilan elkarreak ez zuen atsedetik hartu abuztuan

Premia duten erretiratuei laguntasuna eskaintzen die Nagusilan elkarreak, eta abuztuan ez zuten atsedetik hartu izan gura, jakin bazekitelako hirugarren adineko lagun askok abuztuan premia berak edo handiagoak izaten dituztela. Hamar boluntario ibili ziren lanean. /2004-09-03


ABUZZTUA LANAK EGITEKO APROBETXATU

↑ Abuztuko oporraldian langile batzuk lanean izan ziren herriko hainbat kaletako galtzada konpontzen. /2004-09-03

GARABIEN LANUZTEAK ARAZO HANDIAK

↓ Arazo handiak sortu zituen garabien lanuzteak abuztuan. Auto asko geratu ziren bide bazterrean. /2004-09-03

AIPAGARRI



JON SAGASTA
Ikaslea

Jonek bi hilabete egin zituen Kanadan. Arrasateko eta Euskal Herriko informazioa eramateaz gain, arkeologo lanean ibili zen hiru astez. /2004-09-03



ISMA ZUBIA
Esataria

Isma Zubia oñatiarra Arrasate Irratian izan zen, abuztuan Olinpiar Jokoetan bizi izandakoa kontatzen. Ederki gozatu zuen; kontu ugari ekarri zituen. /2004-09-03



BITTOR AMOZARRAIN
Mendizalea

Bittor Amozarrain abuztuan itzuli zen Gasherbrum-2ko espediziotik. Ekainean abiatu ziren, eta uztailaren 26an igo ziren G2ko tontorrean. /2004-09-03



umelaga

JATETXEA

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela denok!



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Opel Astra berria

Ulertzen duzu zergatik dioten etorkizuna
geroz eta azkarrago datorrela?



Etorkizuna heldu da Opel Astra berrira. SAFETEC sistemari esker teknologia aurreratuenaz bere mailako autorik seguruena da EuroNCAP* 5 izarrekin. Diesel gamako motor indartsuenak eta ondorengo motor berriekin 1.9 CDTI 120 ZPtik 150era eta gasolina motorrak 200 ZPrainokoak.



Eta gainera ekipamendu osoenarekin: •IDS^{plus} Gidatze Sistema Interaktiboa • ESP^{plus} Egonkortasunaren Kontrol Elektronikoa • Tcplus Trakzio Kontrola • Sport Switch botoia • AFL faro moldakorrak • ALC argitasunaren kontrol automatikoa • ABS balazta sistema • 6 aire-zaku • CBC Balazten Kontrola Bihurguneetan • EHPS Direkzio Lagundua • HSA Irteera Sistema Aldapetan.

12.670 €** Astra bat daukazu. Proba ezazu 902 200 590 telefonoan edo www.opel.es webgunean.

*Puntuazio altuena alboko eta gurretiko inpaktuan txoke proban eta umeen babesean Sedan trinko kategorian. **Salmenta prezio gomendatua Penintsulan eta Balearretan Opel Astra Essentia 5 ate 1.4 16v 90 ZP autoarentzat hilabete bukaera arte. BEZa, garraioa, matrikulazio zerga, kit akzesorioak, promozioko deskontua eta gasolina Prever Plana barne. Astra gama: kontsumoa (l/100km) mistoa 4,9tik 9,3ra. CO2 emisioa (g/km) 132tik 223ra.

Giauto

San Andrés 10D. Tel. 943 77 30 10. **ARRASATE**

IRAILA



"Gauzak ondo badoaz, laster hasiko naiz nire lehen film luzearekin"

MANU GOMEZ / ZINEMAGILEA

2004-09-17



"Gaixo batek uste badu nahikoa sufritu duela, hori errespetatu egin behar da"

JON UNAMUNO / LANGILEA

2004-09-17

HILEKOESALDIA

"Besteon moduan, politikoeek ere adin bat izan beharko lukete erretiroa hartzeko"

AITOR PAVON / IKASLEA


2004-09-10

HILEKODATUA

36

ZUHAITZ BOTAKO DITUZTE MONTERRON PARKEAN

Hainbat adituk egindako ikerketaren arabera, beharrezkoa zen Monterrongo 36 zuhaitz botatzea. /2004-09-17



Autorik Gabeko Astea, autoa gutxiago erabiltzearen alde egiteko

Irailaren 16tik 21era arte Autorik Gabeko Astea izan zen Arrasaten. Hala, gai horrekin lotuta, egunero ekitaldi bat egin zuten; tartean, Bir-Zikleta izeneko azoka txikia, gaztetxoek bizikleta irteera, bizikletak zaintzen ikasteko ikastaroa... Hiru egunez, herri-autobusa doan jarri zuten, eta irailaren 21ean, Autorik Gabeko Egunean, Biteri eta Garibai kaleak itxita egon ziren. /2004-09-10

EUSKAL HERRIKO UDAL LIBURUTEGI BATERATUA

↑ Arrasateko Udal Liburutegia Euskadiko Liburutegi Sarearen Interneteko katalogoan sartu zen. /2004-09-10

ESPAINIAKO ARMADAKO SOLDADUAK ARRASATEN

↓ Irailaren 15ean, 19:30ak aldera, ehun soldadu inguru azaldu ziren Monterron parean. /2004-09-17

AIPAGARRI



LARRAITZ KORTABARRIA
Futbol jokalaria

Mondran eta Eibarraren jokatu eta gero, Bartzelonak fitxatu zuen irailan Larraitz Kortabarría. Ikasten dabil Bartzelonan, eta bide batez, futboleant jokutzen. /2004-09-10



MERTXE VALDIVIESO
Txakur hezitzailea

Mertxe Valdivieso Lekeition izan zen, Terranova txakur-rekin egin zituzten proba ikusgarrietan epaile lanetan. Gainera, erakustaldia egin zuen. /2004-09-17



LAURA IRIZAR
'Basetxea K'-n

Laura Irizar ETB1eko *Basetxea K* saioan lehiakide izan da. Grabaketak amaituta, Arrasate Irratian izan zen saioan bizi izandakoak kontatzen. /2004-09-17

ARRASATEKO BATZOKIA

Berriz zuen artean. Urte berri on!

- Eguneko menuak.

- Aste bukaerretako menu bereziak.

- Afariak enkarguz ematen ditugu.

Iturriotz 41. ARRASATE Tel.: 943 79 63 69

URRIA

HILEKOESALDIA

HILEKODATUA

“Guraso askok ez dakite zein garrantzitsua den bertsoak egitea burmuina garatzeko”

PATXI GOIKOLEA / BERTSOZALEA
2004-10-22

114

ORTU EGOERA IRREGULARREAN AZTERTUTA

Egoera irregularrean dauden 114 ortu ibili da aztertzen Udala. Gargartzan egin gura dituzten ortuen harira datoz ikerketak. /2004-10-29




“Traultza-zerga ordaintzea ez da delitua. Bizi izan duenak jakingo du hori.”

AITOR YAÑEZ / IKASLEA
2004-10-22



“Errazagoa da hirietan ‘armairutik ateratzea’ herri txikietan baino”

ANA URETA / ALDARTEKO KIDEA
2004-10-15



Arrasateko etxe hutsak alokatzeko egitasmoa abian

Arrasaten dauden etxe hutsak merkaturatzeko hitzarmena sinatu zuten Arrasateko Udalak eta Jaurlearitzako Etxebizitza Sailak. Lehenengo aldia zen Gipuzkoan horrelako hitzarmena sinatzen zutela. Egitasmoaren helburua zen etxe hutsak alokairuan ipintzea, prezio merkean. Egun batzuk lehenago ere egon zen Madraza Arrasaten, Zerrajerako etxebizitzaren zozketan. /2004-10-22

‘AUTOAN ELKARREKIN’ EGITASMOA

Udalak *Autoan elkarrekin* ekimena abiarazi zuen, herritarrek autoa modu egokiagoan erabil dezaten. /2004-10-01

URIBARRIKO ERRETIRATUAK HASERRE UDALAREKIN

Uribarriko erretiratuak haserretu egin ziren Udalarekin, elkarteak itxi beharko zutela garaiz ez esateagatik. /2004-10-08

AIPAGARRI



MELINA LOPEZ
Artista

Melina Lopezek urtebete egin zuen lana Monterronen izan zen ikusgai. XX. mendeko zortzi emakume artistaren lanetan oinarritutako lana egin zuen. /2004-10-01



MARTIN CALVÓ
Kazetaria

Martin Calvok *Cooperativismo y cohesión social en Mondragón* liburua aurkeztu zuen urriaren 25ean. Liburua ikasketa amaierako tesia da, moldatuta. /2004-10-29





JUAN MONTIANO
Artista

Juan Montiano idazle arrasatearrak *Los vagabundos* izeneko eleberria aurkeztu zuen. Haren lanek genero fantastikoaren elementuak izaten dituzte. /2004-10-29



Carrascal, S.L.

BERTAN EGINDAKOAK:



AZAROA



"Pentsatu barik margotzen dut, eta margolana azaldu egiten da"

BINGEN DE PEDRO / MARGOLARIA

2004-11-12



"Ezaugarri kulturaletara heltzeko, etorkinek egonkortasuna behar dute"

JULEN AREXOLALEIBA / IRAKASLEA

2004-11-22

HILEKOESALDIA

"Mutilen jokoetan gutxitan lantzen da sentimenduen adierazpena, nesken jokoetan ez bezala"

MARIJE APODACA / HEZITZAILEA


2004-11-12

HILEKODATUA

61.000

AUTO IBILTZEN DIRA EGUNERO ARRASATEN

Mugikortasun plan iraunkorraren gaineko ikerketaren arabera, 61.000 auto ibiltzen dira egunero Arrasaten. /2004-11-26



TRATU TXARREN KONTRAKO PLATAFORMA

↑ Herri plataforma aurkeztu zuten azaroan, emakumeekiko elkartasuna adierazi eta tratu txarrak salatzeke. /2004-11-12

GAZTETXEEN KONTRAKO ERASOAK

↓ Arrasateko gazteek kale agerraldia egin zuten gatzetxeen kontrako erasoak salatzeke. /2004-11-12

AIPAGARRI



DIEGO MARTIARTU
Idazlea

Diego Martiartuk esku hartu zuen Juan Martin Elexpuruk zuzentzen duen *Literotura* bildumako 11. zenbakian, *Lehenengo aldia* ipuin liburuan. /2004-11-22



JESUS LARRAÑAGA
Kooperatiba sortzailea

Arrasateko kooperatibismoaren sortzaileetakoa, maiatzean hil zen Jesus Larrañaga. Hark idatzitako liburua aurkeztu eta omenaldia egin zioten. /2004-11-12




JOSE ANTONIO AJURIA
Lagun Aroko Presidentea

Lagun Aroko presidentea argitu zuen *Goienkaria*-n, Osakidetza pasatzea ez dela Lagun Aroren erabakia izan, administrazioarena baizik. /2004-11-12

Etorkizunean Udalatx barrutik ustia daitekeen probak egiten

Kanpanzarko harrobia ustiatzen dabilen enpresa etorkizunean kareharria mendi barrutik ateratzeko aukerak aztertzen ibili da. Dagoeneko 60 metro baino gehiagoko zuloa egin dute, eta proiektua betetzen bada, 1.000 metro baino gehiago hondeatuko dituzte, galeria egiteko. Esan zuten, lan horiek egin aurretik gizartearen oniritzia bilatuko dute. /2004-11-26



CANAS ESTEBAN S.L

ERAIKUNTZAK

Urte berri on!

Uribarri kalea 20 behea. ARRASATE. Tel.: 943 79 81 80 / 77 11 63. Faxe: 943 79 81 80

ABENDUA



"Ekimen positiboa izan da Garaia eta Fagorko gunek inauguratzea"

INAZIO LAKUNTZA / ALKATEA

2004-12-10



"Aurreiritzi larregi daude poesian, badirudi edozeinek ezin duela idatzi"

ENEKO BARBERENA / IDAZLEA

2004-12-03

HILEKOESALDIA

"Esango nuke erotismoa moduko gaitan euskaldunok nahiko hotzak garela"

KAITIN ALLENDE / IRRATI ESATARIA

2004-12-07

HILEKODATUA

100

LAGUN BAINO GEHIAGO ZARZUELAN LANEAN

Abenduan egindako zarzuelan 100 herritarrek baino gehiagok egin dute lan. Emanaldi arrakastatsuak izan dira guztiak. /2004-12-13



Errege-erreginak Arrasaten

Garaia Berrikuntza Guneko lehenengo harria jartzera eta Fagorko ontzi-garbigailuen gunea inauguratzera etorri ziren abenduaren 9an Espainiako errege-erreginak gura. Garaian izan ziren lehenengo. Ibarretxe lehendakariarekin, MCCko arduradunekin eta beste hainbat politikarirekin batera. Handik, Fagorrek Garagartzán duen lantegirako bidea hartu zuten, sekulako babes-neurrien artean. Ontzi-garbigailu berriak ikusteaz gain, lantegia bera ere bisitatu zuten.

Bitartean, kalean, errege-erreginak Arrasatera etortzearekin konforme ez zeuden herritarrek protesta ekitaldia egin zuten. LABek bi orduko lanuztea egiteko eskatu zuen, eta goizean eta arratsaldean kale agerraldi jendetsuak egin zituzten. /2004-12-10

ERAKUSKETA ETA KOADRO SALMENTA SOLIDARIOA

↑ Ibarreko artistek emandako lanekin erakusketa eta koadro salmenta solidarioa egin dute Monterreren. /2004-12-17

SANTAMAS JAIETAN ADOSTASUNIK EZ


↓ Aurten ere Udalak, Komisiñuek eta kultura taldeek ez dute bat egin jaiak antolatzeke orduan. /2004-12-17

AIPAGARRI



LEIRE BERGARA
Boheri GKEko kidea

Leire Bergara Boheri izeneko GKEko kidea da. Kolonbian eta Venezuelan egiten du lan elkarte horrek. Besteak beste, eskolak sortzen dituzte. /2004-12-10



BIXENTE BARANDIARAN
Errementaria

Abenduaren 7an hil zen Bixente Barandiaran, Arrasateko azken errementaria. Hark utzitako ondarea Erakusketa Industrialdean geratu da. /2004-12-10



IBAN DEL CAMPO
Zinemagilea

Beste sari bat jaso du Iban Del Campo zinemagile arrasatearrak. *Un tal Eusebi* dokumentalagatik publikoaren saria jaso du Zallako zine jaialdian. /2004-12-10



Gipuzkoa Etorbidea z/g
Tel.: 943 79 20 50
ARRASATE

HOSTAL MUSAKOLA

Zorionak eta urte berri on!!



ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Gabon
jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Basabe Industrialdea 4 - EO -11 Aretxabaleta

943-790151 608-772867 679-455764

ERRETRATUZAHARRA

Jaiotza biziduna kalerik kale

Azken urteotan ohiturak aldatu diren irudi da oraingo asterako aukeratu dugun antzinako argazkia. 1945ekoa da. Ezin bestela izan eta Gabon sasoi izanda, Gabonekin lotutako argazkia ekarri dugu. Ikusten duzuen moduan, Belengo estalpea irudikatzen du, nahiz eta Jesus Jauna ez ikusi argazkian. Eta gaur egun ez bezala, sasoi hartan jaiotza biziduna egiteko ohitura zegoen Arrasaten eta inguruko herrietan. Are gehiago, Eguberri egunean (egun handiena huraxe izaten zen orduan) jaiotza karroza baten gainean ipini eta herriko kaleak zeharkatzen zituzten, herriko plazara iritsi arte. Argazkiko karroza Zerrajeran egin zuten. Eta Accion Catolica arduratu zen antolaketaz. Errege egunean ere gauza bera egiten zuten kabalgatarekin.

Honako hauek agertzen dira argazkian, behean, belauniko edo eserita, ezkerretik eskumara dauden aingerutxoak: Angel Atxa, Jose Luis Diaz de Villafranca, Maria Natividad Martinez eta Txaro Velez de Mendizabal. Ama Birjina Kontxi Ugalde da; San Jose, berriz, Antonio Atxa. San Joseren ondoan dagoen neskatila Mari Karmen Ayani da eta falta diren bi aingerutxoetatik Estibaliz Artzamendi da neskatila eta Juan Mari Garro mutikoa.

Argazkia: Arrasate Press.

Informazioa: J. M. U.

Urtea: 1945.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero,
zatoz ARRASATE PRESSera (Otalora Lizentziaduna 31)
Zain gaituzu!

Zorionak eta urte berri on!

haurtxoa

Erdiko kalea 16
Tel.: 943 79 14 90
ARRASATE




Jaioberrientzako jantzi eta osagarri guztiak: aulkiak, jostailuak, sehaskak...



Zorionak denori ta urte berri on Gaboak dira eta denok pozik egon.

Zenbat opari eta ai! zenbat zorion eta bihotz-bihotzez bai eguberri on.

4. maila



Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 620 12 48 43

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otalora lizentziaduna 18 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 943 77 14 72

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behe 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. 943 79 65 56

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22

Txirritola

ARAMAIO / Eguena / 2004ko abenduaren 23a / 134. zenbakia

2004
urteari
begiratua
ARAMAIO

*Aramaiar guztioi, 2005
zoriontsua opa dizuegu*



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Bixente Goikoetxea 2. Tel.: 945 44 52 08/Faxa: 945 44 52 76

URTARRILA



"Gazte lokalen kasuan, burugogorkeria apur bat dago alde bien partetik"

ENERITZ MONDRAGON / GAZTEA

2004-01-16



"Pentsatu genuen elkarte bat egin behar genuela; herriko lehena izan zen"

EUSEBIO A. / IZARRA ELKARTEA

2004-01-23



Etxekoak txapeldun Arabako Taldekako Bertsolari Txapelketan

Gorbeialdeko taldeak irabazi zuen 2004ko Arabako Taldekako Bertsolari Txapelketa. Batez ere, aramaioarrez osatutako taldea zen Gorbeialdekoa. Hain zuzen, herriko lau bertsolarik jokatu zuten talde hartan: Manex Agirrek, Iker Agirrek, Andere Arriolabengoak eta Gillen Agirrek. Zilarrezko platera eta poza ekarri zituzten etxera bertsolari gazteek. /2004-01-23

KIROLA

Maider Unda Espainiako txapeldun seigarren aldiz

Seigarren aldiz eskuratu zuen txapela Maider Unda borrokalaria oletarrak Espainiako Txapelketa nagusian. Gijonen eman zioten Undari borroka libreko emakumezko ligaren garaile izendatzen zuen domina. Eta handik aurrera buru-belarri ekin zion oletar gazteak Atenasen jokatu behar ziren Olinpiar Jokotarako prestatzen. Makina bat

kanporaketa irabazi zuen Undak Olinpiar Jokotarako sailkatzeko. Baina martxoko kanporaketetan ezin izan zuen aurrera egin, eta, zoritxarrez, Olinpiar Jokoen atarian geratu zen aramaioarra. Ordudanik, Madrilen gustura ez eta Aramaioara bueltatu zen Maider Unda. Harrezkero, etxean eta Gasteizen entrenatzen jarraitu du. /2004-01-30



Maider Unda borrokalaria.

GIZARTEA

Urteko sagardoarekin txotx egin zuten Iturrietan

Arabako idazle ezagun Toti Martinez de Lezea aukeratu zuten Iturrietakoek 2004ko sagardoarekin txotx egiteko. Hari laguntzen herriko trikitilariak, txalapartariak eta bertsolariak izan ziren Arraga auzoko sagardotegian. Erraz edateko sagardoa estreinatu zuten txotx jaira joan zirenek, goxoa eta garraztasun bakoa. /2004-01-16

HIRIGINTZA

Udaletxea berritzeko lanak esleitu zituen udalbatzarrak

Mauricio Arregi enpresari esleitu zizkioten udaletxea berritzeko lanak. Helburua zen udaletxea egokitzea. Besteak beste, zailtasunak dituztenendako igogailua ipini gura zuten eta herritarrendako harrera-guneak egokitu. Lanon ondorioz, udal langile guztiek osoko bilkuren artoan ibili behar izan dute lanean martxoa ezker. /2004-01-30

GIZARTEA

Espainiako gerrako kaskoa aurkitu zuten Zabola auzoan

Jorge Errasti barajuendarrak 36ko gerrako kaskoa aurkitu zuen Zabola inguruko basoan ehizan zebilela. Arangiotik hasi eta Asentzioko, Kurtzetako, Tellamendiko eta inguruko mendi-gainetan egon ziren trintxeren lekukoa zen hura. Auzokideek eskatuta, Barajuen auzoan gorde zuen gerrako erlikia hura. /2004-01-16

OTSAILA



"Esne-saltzaileak dirulaguntzek lagunduta bizi gara. Orain dela 20 urteko prezioekin gabiltza, eta dena igo da, baina esnea ez"

ROBERTO LASAKA / ESNE-SALTZAILEA

2004-02-13

HIRIGINTZA

Babes ofizialeko etxebizitzendako lanak hasita

Pedro Ignacio Barrutia kalean egin behar dituzten babes ofizialeko etxebizitzendako urbanizazio lanak egiten hasi ziren. Oro har, etxebizitzak eraiki ahal izateko orubea gertu uztea zen lanon helburua. Hala, bada, besteak beste, ur, argindar eta telefonia azpiegiturak sartu zituzten. Horrekin batera, zenbait herritarren ikamika piztu zuen pareta bat eraiki

zuten errekan. Zenbait gorabehera izan eta gero, erabaki zuten egin dako pareta ez zela legezkoa, eta orain, bota egin beharko dute.

Asmoa da babes ofizialeko 44 etxebizitza eraikitzea Pedro Ignacio Barrutian. 40 errepidearen goiko aldean eraikiko dituzte eta beste laurak errearen gaineko aldean. Kopuruaren erdiak aramaioarrendako dira. /2004-02-06

KULTURA

Barikuetan zinema saioak egiten hasi ziren

Alex Aginagalde zinema-zalearen ekimenez, abenduan zinema saio bereziak egiten hasi ziren Aramaion, proba moduan. Eta izandako harrera ona ikusita, otsailetik aurrera programazio erregularra landu zuen Aginagalde. Antolatzailearen hasierako asmoa zen film klasikoak eskaintzea, gero, Oscarrak edo sariren bat zuten filmak aukera-

tu gura izan zituen, baina hori jendea ez zaiola horrenbeste gustatzen ikusita, azkenean film komertzialagoetara jo behar izan du Alex Aginagalde. Aurrerantzean halakoak nagusi izango diren arren, hilean behin film klasiko bat emateko asmoa du. Batez beste, 20 bat lagun joaten dira aramaioar gazteak antolatutako zinema emanaldietara. /2004-02-06

HIRIGINTZA

Plastikoak-eta batzeko edukiontzi horiak ipinita

Herritarren artean birziklapena bultzatze aldera, Udalak, plastikoak eta bestelako ontziak batzeko edukiontziak ipini zituen herriko auzo guztietan. Guztira, 33. Hain zuzen ere, lehenagotik zaborra batzeko zehaztuta zeuden puntuetan ipini zituzten edukiontzi berriak. Plastikozko

ontziak, latak eta brick ontziak batzeko edukiontziak dira Udalak ipinitako berriak.

Bestalde, edukiontzi hori horiek erabiltzen laguntzeko, Udalak ontzi txikiak banatu zituen herritarren artean. Etxe bakoitzerako bana eman zuten, guztira, 700. /2004-02-13



Herriko auzo guztietan ipini zituen Udalak edukiontzi berriak.

MARTXOA



"Jendeak kasu larregi egiten die landareei; bakean utzi behar dira"

JOXE ORUNA / LOREZAINA

2004-03-18



"Gizonen monopolioa bukatu da; kostata, baina neskak hasi gara"

ANDERE A. / BERTSOLARIA

2004-03-26



Ipuin lehiaketako irabazleak

Txirritola Euskara Elkar-teak antolatutako Ipuin Lehiaketako sei sariak banatu zituzten kultura etxean. Parte hartu zuten 20 lagun artean honako hauek irabazi zuten: Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan Mainer Aldaik irabazi zuen *Ametza* izenburuko ipuinarekin eta Eider Vallina geratu zen bigarren *Txoria eta Sorgina* ipuinarekin; Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan Amaia Kortabariak irabazi zuen *Kuadrilako gertaerak* izeneko lanarekin eta Mainer Ibabe izan zen bigarren *Irla Sorgin-dua* lanarekin. Eta DBHko lehenengo zikloan Beatriz Azurmendik irabazi zuen *Jaioberriak hitz egiten du* izenburuko lanarekin eta Iraia Beitia izan zen bigarren *Maitasunezko eskutitza* lanarekin. /2004-03-05

APIRILA



"Erronka da gureak moduko herri txikietan bizitzea, bereziki, gastua hirietan baino handiagoa delako"

JAVI CARRO / ZUIAKO KOADRILAKO PRESIDENTEA

2004-04-23

KULTURA

Bizente Goikoetxearen aldeko ekimenak izan ziren

Bizente Goikoetxea musikari aramaiarra hil zela 150 urte bete zirela-eta, Udalak hari omenaldia egitea erabaki zuen. Hala, besteak beste, Arabako gotzainak meza berezia esan zuen haren omenez. Mezaren ostean kontzertua egin zuten eta musikariaren omenezko plaka ipini zuten elizpean. Espainiako Polifonia Modernoa-

ren Printzea, Espainiako Musika Sakratuko Eskolako Buruzagi eta antzeko izendapenak erabili izan dituzte Bizente Goikoetxeaz berba egitean. Izan ere, erlijioarekin lotutako lan handiak egin zituen hark XIX. mendean. Betiere, kantu gregorianoa eta berpizkundeko polifonia oinarri hartuta. /2004-04-07

KULTURA

Aramaioko I. Gazte Egunaren emaitzarekin pozik

Trikitia eta panderoa hartu, bertsoen doinuekin kantu bereziak egin, eta, modu horretan, kalez kale eta tabernaz taberna ibili ziren Aramaioko eta inguruko gazteak. Halaxe hasi zuten Aramaioko I. Gazte Eguna. Gero, 45 bat lagun elkartu ziren afaltzeko. Eta afalostean, musika kontzertua izan zuten kiroldegian.

Kontzertua egin zuten bost taldeen artean, bi aramaiorrek ziren: Ataka eta Sakre.

Antolatzaileak pozik geratu ziren I. Gazte Egunak izan zuen erantzunarekin. Izan ere, herriko gazteekin batera, inguruko gazte ugari ere ibili ziren jaia ospatzen. Asmoa da datorren urtean errepikatzea. /2004-04-23



Kiroldegiko kontzertua ikusten 170 bat lagun izan ziren.

HAUTESKUNDEAK

PP izan zen galtzaile nagusia 2004ko hauteskundeetan

Inguruko herrietan moduan, Aramaion ere gora egin zuten EAJ eta EA alderdiek. Ezker aldeko alderdiek ere joera bera izan zuten. Ez horrela PPK. Hura izan zen galtzaile bakarra, botoen %5,5etik %2ra jaitsi zen. Aipagarria da, era berean, Aralar aurkeztu zela lehen aldiz. %22,33ko abstentzioa izan zen Aramaion. /2004-03-18

KULTURA

Arabako II. Bertsolari Txapelketako finalerdia Aramaion

Arabako II. Bertsolari Txapelketako lehen finalerdia Aramaioko kultura etxean jokatu zuten. Sei bertsolari lehiatu ziren: Andere Arriolabengoa, Ruben Sanchez, Oihane Perea, Asier Otamendi, Orlando Arreitunandia eta Zigor Enbeita. Andere Arriolabengoa izan zen gazteena. Laugarren postua eskuratu zuen berak. /2004-03-26

GIZARTEA

Zuhaitz Eguna ospatu zuten San Martin Eskolakoek

San Martin Eskolako 50 umek bat egin zuten Kurtzetan, 2004ko Zuhaitz Eguna ospatzeko asmorekin. Han, aitzurra eskuan hartu eta zuhaitz adaxka gazteak landatu zituzten. Bestalde, Joxe Oruna lorezainaren laguntzarekin, herriko landareen eta zuhaitzen gainean gehiago ikasteko aukera izan zuten neska-mutikoez. /2004-03-26

GOIKO

taberna

Nardeaga 25
ARAMAIO
Tel.: 945 44 50 14

ITURRIOSTE GARAJEA

Nekazaritza makinak eta autoen
salmenta eta konponketa.

Olio, gurpil eta balazten konponketa

Urte berri on!

Santi Kurtz plaza 14.
Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO

MAIATZA



"Pilotaren inguruan sortutako enpresek dirua ateratzeko jarduten dute"

AITOR AXPE / PILOTAN EPAILE

2004-05-21



"Egundokoa litzateke Udalak Torraldeko pinudian parkea egitea"

L. GARDOKI / BARAJUENGO ALKATEA

2004-05-28



Gazte talde bat sortu zuten

Talde berria sortu zuten Aramaion: Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada (ATGA). 50 bat gazteren artean sortu zuten taldea. Arrasateko gaztetxearen eta Otxandioko gazte taldearen laguntza izan zuten taldea sortzeko. Oro har, euskara lantzea eta herriko gazteen arteko harremana sendotzea da talde berriaren helburu nagusia. Horrez gainera, herriko elkarteekin harremana sendotzeko ere ahalegin berezia egitea erabaki zuten gazteek. Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak egin zuen aurreneko ekimena herriko jaiak antolatzea izan zen. Hala, gazteendako musika kontzertuak, eskolako umeekin antzerkia eta umeendako zein gazteendako jokoak antolatu zituzten, besteak beste. /2004-05-14

EKAINA



"Arexola auzoaren egoera tristea da; bi urtean lanean gabiltza, egin beharrekoa bukatu ezinda"

AGUSTIN ARRIZABALAGA / AREXOLAKO AUZO ALKATEA

2004-06-25

KULTURA

Aramaioarrak Eskolarteko Euskadiko Txapelketara

Aramaioetik zazpi bertsolarik parte hartu zuten Arabako VIII. Eskolarteko Bertsolari Txapelketan; eta zazpiotatik hiruk irabazi egin zuten zegokien saioa. Batetik, idatzizko proban finalera iritsi ziren 55 lehiakideen artean, Xabier Igoa aramaioarra gailendu zen 14 urte azpikoen mailan. Eta beste bi aramaioar bat-bateko bertso saioan

gailendu ziren. Markel Arriola-bengoa, batetik. Eta Iker Agirre, bestetik. Hain zuzen ere, bigarren horren gainean, eta adituen arabera, gainerako parte-hartzaileen ondoan, etorri eta bizitasun handien izan zuten 14 urtetik 18 urtera artekoen mailan irabazi zuten biek: Iker Agirrek eta Izar Mendigurenek. /2004-06-11

KIROLA

Bi aramaioarrek 2004ko ralliesprintean jokatu zuten

Ekainaren 12an ralliesprinta jokatu zuten Aramaion. Parte hartu zuten 39 lasterkarien artean, Haritz Errasti eta Ander Oion aramaioarrak ere izan ziren. Dirua aurreratzen eta aurreratzen hasi eta automobila erosi zuen Haritz Errasti Azpiko-k. Gero, lasterketarako laguna aurkitu zuen, eta entrenatzeko arazo handiak izan

bazituzten ere, bi gazteek Aramaioko ralliesprintean jokatzeko lortu zuten. Ralliesprintean 6,6 kilometroko ibilbidea zuten aurrez aurre. Baina, zoritxarrez, bi aramaioarren automobila errepidetik atera zen eta lehiaketatik kanpo geratu ziren. Hori bai, lehen txanpan, mailako lehenak izan ziren. /2004-06-04

GIZARTEA

Lapurrak ibili ziren herriko zenbait lekutan

Herriko hiru lekutan lapurrak sartu ziren: kultura etxera, Anboto tabernara eta okindegira. Kultura etxetik ezin izan zuten ezer hartu, okindegitik gauza gutxi hartu zuten; baina Anboto tabernatik 600 euro dirutan, telefona eta presoan eta herriko bi lagunak aldeko itsulapikoak eramatea lortu zuten lapurrek. /2004-05-07

INGURUMENA

Erabilitako olioak batzen hasi ziren Aramaion

Arabako Foru Aldundiak bultzatuta eta Udalak lagunduta, automobiletan, traktoreetan eta motordun bestelako tresnetan erabilitako olioak batzen hasi ziren. Iturroste garajeetan ipini zuten hori egiteko ontzia. Asmoa zen batutako olioak birziklatzea eramatea, berriro ere motorrendako olio erabilgarri bihurtzeko. /2002-05-17

KULTURA

Esaera zaharren bertso lehiaketaren emaitzarekin pozik

Balorazio ona egin zuten Txirritola Euskara Elkartekoek esaera zaharren bertso lehiaketaren gainean. Antolatzaileen esanetan, 15 bat lagunek ekin zioten lehiaketari, baina bukaera alde-ara lagun gehiagok egin zuten ekimenarekin. Oro har, oso ekimen alaia eta polita izan zela ikusita, antolatzaileen asmoa da errepikatzea. /2004-05-28



Argazkian Haritz Errasti Azpiko eta Ander Oion, bi lasterkariak.

UNZUETA
JATEETXEA

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrillan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95



BEHI-ALDE

ERKOP

BEHI-ALDE, KOOP. E.

Olaeta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala

44 posta kutxa
20500 Arrasate



Tel.: 945 45 01 00
945 45 03 15
Faxa: 945 45 01 00
945 45 03 15

ONDO PASAU SAN MARTIN JAIK!

UZTAILA



"Auzotarrok nahi duguna da dagoen bidea zabalago egitea, kamioiak sartzeko"

MARTIN ETXABE / MATXAIN
2004-07-02



"Auzotarrei esango nieke batera jarri eta hitz egiten hastea komeni dela"

MIKEL KORTABARRIA / ARRAGA
2004-07-17



San Martinak, Arrantza Lehiaketa eta San Kristobal eguna

Jaiak izan ziren nagusi uztailean Aramaion: lehenengo, herrikoak, San Martinak etorri ziren, hilabete hasieran. Lehen aldiz gazteek antolatu zituzten jaiak, eta, oro har, jendea pozik geratu zen. Gero, Arrantza Lehiaketa egin zuten. 200 bat amuarrain bota zituzten errekaraz gazteek arrantzan egiteko. Bukatzeko, San Kristobal eguna ospatu zuten uribarriarrek. /2004-07-10

KULTURA

Erantzun ona izan zuten udako ikastaroek

batez beste, 60 lagun baino gehiago hartu zuten parte udako ikastaroetako eskola bakoitzean. Inguruko herrietatik aparte Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio... urrunagotik ere etorri ziren interesatuak. 2004ko udako ikastaroen oinarria XVI. Mendeko Euskal Herria izan zen: Euskal Herria XVI. mendean. Hizkuntza eta kultura garai eraba-

kigarrian izan zen izenburua. Eta gai horren gainean berba egiteko pertsona entzutetsuek bisitatu zuten Aramaio. Guztira 15 aditu-hizlari izan ziren. Tartean, udako ikastaroen antolatzaile Henrike Knörr euskaltzainordea. Bestelako artean, Joseba Lakarraren eskuizkribua landu zuten hizlariak, eta baita autore bera ere. /2004-07-09



Ikastaroen irekiera ekitaldia.

ABUZTUA



"Gure artean ondo konpontzen gara eta harreman ona eta gogoia izanez gero, gauzak egin daitezke."

JUAN ANTONIO ARETXAGA / UNTZILLA ETA SUÑA
2004-07-23

GIZARTEA

Gertaera askorik ez, baina jaiak ugari Aramaio aldean

Inguruko leku gehienetan moduan, abuztua hilabete lasaia izaten da Aramaion. Lasaia gertaera aldetik. Horrek ez du esan nahi herrian geratzen direnak aspertu egiten direnik. Ezta gutxiago ere. Izan ere, abuztuan horren ugariak izaten diren inguruko jaiak batera, Aramaion bertan ere izaten da zer aukera-

tu. Hala, abuztuaren hasiera aldean San Esteban jaiak ospatu zituzten Uribarriko auzotarrek eta haiekin bat egin zutenek. Abuztuaren erdialdean, Andra Mari egunarekin batera, Barajueneren zein Oletan ospatu zituzten jaiak. Eta abuztuari amaiera polita emateko, San Bartolome jaiak ospatu zituzten. /2004-07-23



Oletan lan handia hartzen dute jaiak antolatzeko.

KULTURA

Txirritolaren postal lehiaketak emaitza polita

Oporretatik bueltan, oporretako kontuak izaten dira nagusi hasieran. Kasu honetan, Txirritola Euskara Elkarteak antolatutako aurreneko postal lehiaketaren emaitza jakin guran etorri ginen. Guztira, 29 parte-hartzailek bidali zituzten postalak lehiaketarako. Eta horien artean, Aitziber Aginagaldek eta Unai Kortabarririk bidalitakoa aukeratu zuten irabazle moduan. /2004-09-17



dukiena
dukiena
dukiena
dukiena

dukiena
J A T E T X E A

Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86
ARAMAIO

dukiena
dukiena
dukiena
dukiena

IRAILA



"Gasaren arazoa neguan konpondu behar da, bestela matxinatuko zaizkit"

ESTHER URIARTE / OLETA

2004-09-17



"Donostia hiri polita da, baina hemen bizi ostean, hura deseroso egiten zait"

MIGEL ANJEL LURI / GANTZAGA

2004-09-24

URRIA



"Argitu beharko da zein den gaur egun arazo alkateen lana. Ez daitezene soilik mandatariak edo pertsona sinbolikoak izan"

PEDRO LIZARRALDE / ZALGO

2004-10-22



Bañera Kirol Elkarte desagertu egin zen

Hamahiru urteko ibilbidearen ostean, areto futbolaz arduratzen zen Bañera Kirol Elkarteak bertan behera utzi behar izan zuen jarduna. Elkarteko zuzendaritzako bi kideek taldea utzi behar zutela eta, haien ordez jarduteko beste norbait aurkitzen buru-belarri ahalegindu ziren arren, Aramaion ez zen inor gertu lan hori hartzeko. /2004-09-10

KULTURA

Bizkaitarrak nagusi Itur-Zurik antolatutako margo-lehiaketan

45 margolarik parte hartu zuen Itur-Zuri elkarteak antolatutako aire libreko margo-lehiaketan. Horietatik 31k nagusien mailan jardun zuten. Eta bitxikeria moduan, esan beharra dago hiru irabazleak bizkaitarrak izan zirela: Jon Idigoras ermuarra lehengo; Jose Migel Arranz astrabuardarra bigarren eta Karmen

de la Fuente bilbotarra hirugarren. Gazte mailan, berriz, 14 lagunek parte hartu zuen. Kasu horretan ere, bizkaitarrak izan ziren nagusi. Hala, Raquel Ruano barakaldoarra gailendu zen maila horretan; Maider Aldai aramaioarra izan zen bigarren eta Javier Ruano bilbotarra, hiru-garrén. /2004-09-15




Argazkian, gazte mailako hiru irabazleak.

GIZARTEA

Kiroldegia zabalik, beste kudeatzaile batzuen esku

Herritarren haserrerako, hila-betetan itxita izan da Aramaio Udal Kiroldegia. Azkenean, irailean zabaldu zuten berriro. Izan ere, ordura arte Anboto enpresak betetzen zituen herriko udal zerbitzuak lehiaketa publikora atera zituen Udalak. Kontua da luze joan zela zerbitzuez arduratuko zen enpresaren aukeraketa

eta zerbitzuen esleitze prozesua. Eta horren ondorioz, zenbait zerbitzu kaltetuta geratu ziren, tartean, herriko kale eta bestelakoen garbiketa eta kiroldegia kudeaketa. Kontuak kontu, arazoa konpondu eta bestelako udal zerbitzuekin batera, Gasteizko Ekoaraba enpresak hartu zuen lan horren ardura. /2004-09-10



Kiroldegia, itxita.


KULTURA

Bertso eskolari babes handiagoa emateko elkarte

Aramaioko bertso eskolari babes handiagoa emateko elkarte sortu zuten: ARBE, Aramaio Bertso Eskola. Udaberrian hasi ziren ekimen horrekin bueltaka. Elkar-tearen helburua zen bertso eskolarako baliabide gehiago lortzea, dirulaguntzak, esaterako. Eta lortu ere lortu zuten, izan ere, Arabako Foru Aldundiak lehenengo aldiz eman zion dirulaguntza Aramaio bertso eskolari.

Xabier Agirre aukeratu zuten elkarteko presidente izateko.

Horrekin batera, eta besteak beste, Manex Agirrek utzitako lekua betetzeko, irakasle berriak estreinatu zituen bertso eskolak: Andere Arriolabengoa (eskolako umeekin jarduteko), Lierni Altuna, Iker Agirre, Gillen Agirre eta Inaki Viñaspre (eskolaz kanpoko ikasleekin jarduteko). /2004-10-15



Musika eta giro paregabea!

Bixente Goikoetxea 10. Tel.: 615 70 45 98 ARAMAIO

UXARTE

- Bost logela komunekin
- Gosariak eta afariak
- TB logelatan

Nekazalturismoa

Untzilla(Aramaio) • Tel.: 945 44 51 46 • Faxe: 945 44 59 10
uxarte@euskalnet.net

AZAROA



"Orain arte kiroldegia herriko haurrek jolasteko aterpea izan da, haurtzaindegi moduko bat-edo"

ALVARO RUIZ / EKOARABA ENPRESAKO LANGILEA
2004-11-05

ABENDUA



"Hedabideek bakoitzaren bidea zein den eta nolakoa den esaten digute"

ARANTZA IBABE / LANGILEA
2004-12-17



"Euskarazko harremana izateko aukera ziurtatuta egon beharko litzateke"

OSKAR ARANA / ITZULTZAILEA
2004-12-17

ZERGAK

Zergen igoyeraren zenbatekoa erabaki zuen udalbatzarrak

2003an zergetan igoyerarik izan ezenez, 2004an udalbatzarrak erabakitako zergen iguera bestetan baino dezente handiagoa izan da. Hala, orokorrean udal zerbitzuei kontsumo prezioen gaineko indizea aplikatu arren, badira zerga batzuk dezente igoko direnak. Horien artean, 2005ean, ur horniduraren gaineko zerga igoko da

gehien: %25, hain zuzen ere. Zabor bilketa, berriz, %15 igoko da eta estolderia, %5,7.

Bestalde, ordura arte aplikatzen ibilitako hobariak bere horretan uztea erabaki zuen udalbatzarrak. Hala, familia ugarietako hobaria %50 izango da hiru seme-alabako familietan, %70 laukoetan eta %90 bostekoetan. /2004-11-12


GIZARTEA

Aurtengo Erretiratuen Eguna sasoi bikainean, berriro ere

Guztira, 26 saltokik bat egin zuten 2004ko Erretiratuen Eguneko baserriaren eta artisauen azokan. Aramaioko Udalak berak 17 saltoki ipini zituen, baina beste bederatziretoren ziren Aramaiora. Oro har, 2003an baino gehiago izan ziren. Horien artean, San Martin Eskolako neska-mutikoen Hirugarren Mundua-

rekiko elkartasun postua ere izan zen, baita Mendiakoak ere.

Erretiratuen Egunean ohi denez, azoka egoteaz gain, meza eta erretiratuendako bazkaria ere izan ziren. Hain zuzen ere, bazkaria izan zen Aramaioko nagusiak omentzeko lekua. Guztira, 160 lagun elkartu ziren Aramaioko kiroldegian. /2004-11-05



Udaletxeko lanak bukatu barik

Udaletxeko langileak abenduaren zati handi bat erabili zuten bulegoetako altzariak, dokumentuak-eta lekuz aldatzen. Udaletxea berri-tzeko lanik handienak abendurako bukatu zituzten-eta; hala, goiko solairuan ipini zuten herritarrendako harrera bulegoa; koadrilako langileen eta euskara teknikariaren gunea; Idazkari-tza, Kontuhartzaitza eta Alkatetza. Beheko solairuan, berriz, gizarte laguntzailearendako gunea egokitu zuten. Igogailua ere ipini zioten udaletxeari. Esandako moduan, lanik handienak abendurako bukatu zituzten; ez, ordea, guztiak. Besteak beste, oso-ko bilkuren aretoko lanak egin barik geratu ziren, eta, aurreikuspenen arabera, otsaila-martxora arte ez dituzte bukatuko. /2004-12-03



Dantza taldeak urtero moduan parte hartu zuen erretiratuen omenaldian.

POLITIKA

Jon Agirre preso aramaioarraren askatasun eske

Jon Agirreren senideek laguntza eskatu zuten presoaren egoera dela-eta. Batetik, presoaren nahia kontuan hartuta, egin behar dioten ebakuntza larria, Malagan barik, Euskal Herrian egin diezaizoten eskatu zuten. Bestetik, eta kontuan hartuta presoak 24 urte daramatzala kartzelan, haren askatasuna lortzeko laguntza eskatu zuten. /2004-12-17

GIZARTEA

Albinako itxitura zenbait puntutan zabaldu behar

Albinako lurjabe batekin izandako ika-mikek eragindako epaketan, epaileak erabaki zuen Albinako itxitura zabaldu egin beharko zutela zenbait puntutan. Horren aurrean, Udalak erabaki zuen 2002an ipinitako hesia ipinitako lekutik kendu eta errepetitiko gertuago ipintzea, eremu publikoan. Lau puntutan egingo dute hori. /2004-12-03

KULTURA

Umeendako zinema emanaldiak berriro ere abiarazita

Udal-zerbitzuen esleipen berriak eragindako etenaldia- ren ostean, berriro ere hasi ziren umeendako zinema emanaldiak egiten. Hain zuzen ere, Gabonetako oporra aprobetxatu zituen Udalak zerbitzu hori abiarazteko. Hala, bada, Anboto enpresak barik, Gasteizko Ekoaraba enpresak beteko du lan hori aurrerantz. /2004-12-03

artizar

Label kalitatea
duen esnea

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Zabola-Azkoaga
ARAMAIO

945 445 924 / 679 162 499

ARBEL S.A.T 16

Garantiazko pentsu naturalak

Errotabarri 1,
Tel: 945 44 51 19
Aramaio



*Aramaioko
Udalbatzak Gabon jai
zoriontsuak opa dizkizue
aramaiar guztioi*



ARAMAIOKO UDALA
ARABA